
**“EG.13 POLLOE” HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN
BEREZIA**

DONOSTIA

**2. Dokumentua
“HIRIGINTZA ARAUAK”**

Testu Bategina
2018ko ekaina

PLANAREN TALDE IDAZLARIA

Planaren zuzendaritza eta idazketa:

- Iñigo Peñalba Arribas, arkitektoa eta ondare eraikiaren zaharberritze eta kudeaketa integraleko masterra.

Kolaboratzaileak:

- María Ordoñez Vicente, geografian eta historian lizentziaduna.
-

Lanen zuzendaritza eta jarraipena:

- Donostiako udaleko Hirigintza departamentua
Zuzendaria: Juan Carlos Cuevas Argandoña, arkitektoa
- Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A. (POLLOE)
Kudeatzailea: Gorka Rueda Ibarreta

AURKIBIDE OROKORRA

- * Dokumentua "1. "HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN MEMORIA INFORMATZAILEA ETA JUSTIFIKATZAILEA"

- * **Dokumentua "2. HIRIGINTZA-ARAUAK".**

- * Dokumentua "3. EGIKARITZEA ANTOLATU ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA".

- * Dokumentua "4. EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNeko AZTERLANA".
 - Dokumentua "4.1 EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNeko AZTERLANA".
 - Dokumentua "4.2 EKONOMIA-IRAUNKORTASUNeko MEMORIA".

- * Dokumentua "5. PLANOAK".

DOKUMENTUAREN AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA
PLANAREN APLIKAZIOARI DAGOZKION IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

LEHEN TITULUA
LURZORUAREN KALIFIKAZIOA ETA PLANA GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO ARAUBIDE
JURIDIKOA

BIGARREN TITULUA
ERAIKUNTZA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZAK
ZEHAZTUTAKO AZPILURSAILEN ARAU PARTIKULARRAK

HIRUGARREN TITULUA
URBANIZAZIO-ARAUAK

LAUGARREN TITULUA
ONDARE KATALOGATUA BABESTEKO ARAUAK

ATARIKO TITULUA **PLANAREN APLIKAZIOARI DAGOZKION IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK**

artikulua.- Aplikazio-eremua.

Hiri Antolamenduko Plan Berezia hau indarrean sartzen denetik aplikatuko da planak berak mugatutako eremu osoan, hain zuzen ere, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "EG.13 POLLOE" eremuan.

0.2. artikulua.- Indarrean sartzea eta indarraldirako baldintzak.

1. Hiri Antolamenduko Plan Berezia hau behin betiko onespena jasotzen duenean, indarreko legerian xedatutako argitalpen-eskakizunak bete direnean eta legerian aurreikusitako epea igarotzen denean sartuko da indarrean, eta mugagabe egongo da indarrean, baldin eta edukiak aldatzen ez badira edo formalki indargabetzen ez badira.

2. Plan honen zehaztapenen bat edo batzuk deuseztatzeak, baliogabetzeak edo aldatzeak ez du eraginik izango gainerako baliagarritasunean, baldin eta horietakoren bat aplikaezina bada haien arteko interakzioagatik edo mendekotasunagatik.

0.3. artikulua.- Planaren esparru arauemailea.

Polloe eremuko (EG.13) Hiri Antolamenduko Plan Berezia honen berezko esparru arauemailea 2010eko ekainaren 25ean onartutako Donostiako Hiri Antolamenduko indarreko Plan Orokorra konfiguraturakoa da eta, bereziki, "2.2 hirigintza-eremuen (HE) eta eremu naturalen (EN) Hirigintza Arau Partikularrak" dokumentuan eta Plan horretako "2.1. Hirigintza Arau Orokorra" dokumentuan ezarritako araubide orokorrean xedatutakoak konfiguraturakoa.

0.4. artikulua.- Plana osatzen duten dokumentuak eta horien arau-maila.

1. Plan Berezia osatzen duten dokumentuak.

- * 1. Dokumentua.
"Hirigintza-antolamenduaren memoria informatzailea eta justifikatzailea".
- * 2. Dokumentua.
"Hirigintza Arauak":
- * 3. Dokumentua.
"Egikaritzea antolatu eta kudeatzeko jarraibideen azterketa".
- * 4. Dokumentua.
"Ekonomia- eta finantza-bideragarritasuneko azterlana".
- * 5. Dokumentua.
"Planoak".

2. Dokumentuen izaera arauemailea.

Plan Berezia eduki arauemailea osatzen duten eta artikuluko honetako 1. Epigrafean aipatu diren dokumentuen multzoak konfiguratu duen arren, 2. Hirigintza Arauak eta 3. Egikaritzea Antolatu eta Kudeatzeko jarraibideen azterketa dokumentuek eta 5. Planoak dokumentuko antolamendu-planoek dute, espezifikoki, izaera hori.

Plan Berezi honetako zehaztapenek Donostiako Hiri Antolamenduko

3.- Planeko Elementuen aldaketa.

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 104. Artikuluan xedatutakora doitzen diren Plan Bereziaren edukiaren aldaketek izango dute izaera hori.

4.- Planaren Berrikuspena.

Udalbatzak Plan Berezia berrikusteko erabakia hartuko du antolamenduan modu garrantzitsuan eragiten duten bat-bateko inguruabarrak gertatzen direnean edo antolamenduaren oinarriko helburuak birplanteatzea eskatzen duten faktoreak gertatzen direnean.

LEHEN TITULUA LURZORUAREN KALIFIKAZIOA ETA PLANA GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA

artikulua.- Hirigintza-erabilerak.

Kontu horri dagokionez, Hirigintza Arau Orokorretan eta Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "EG.13 POLLOE" eremuaren Hirigintza Arau Partikularrean xedatutakoa bete beharko da.

1.2. artikulua.- Plangintza, urbanizazioa eta eraikitze eskumena egikaritzea.

Plan honetan jasotako aurreikuspenak egikaritzea indarreko hirigintza-legerian xedatutakora doitu da.

Antolamenduaren ondoriozko ekipamendu-lurzati guztiak lurzati bakarra osatuko du, identifikatzen diren eta dagokien eraikigarritasun fisikoa esleituko zaien azpilursailen kalterik gabe.

Eremuaren finkatze-mailari erreparatuta, haren garapena lurzati eraikuntza-proiektuen bidez eta urbanizazioko obra-proiektuen bidez gauzatuko da.

Aipaturiko proiektuak aplikatu beharreko indarreko legerian xedatutakoaren arabera eta, bereziki, irisgarritasun unibertsalaren arloan indarrean dauden zehaztapenen arabera idatziko dira.

BIGARREN TITULUA
ERAKUNTZA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZAK
ZEHAZTUTAKO AZPILURSAILEN ARAU PARTIKULARRAK

2.1. artikulua.- Eraikuntza- eta erabilera-baldintzak.

Kontu horri dagokionez, Hirigintza Arau Orokorretan eta Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "EG.13 POLLOE" eremuaren Hirigintza Arau Partikularrean xedatutakoa bete beharko da.

2.2. artikulua.- Hilerriko komunitate-ekipamenduko g.00 lurzatian identifikatutako azpilursailen Arau Partikularrak.

Plan Bereziak hilerri-erabilera eta 64.556 m²-ko azalera dituen g.00.EG.13 lurzatia identifikatu du.

Gainera, bost azpilursail identifikatu dira ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

Azpilursaila	Azalera -m²-	Eraikigarritasun fisikoa - m²(t)-
g.00.EG 13. 01	1.021 m ²	Egungo finkatua + 500 m ² (t)
g.00.EG 13. 02	231 m ²	Egungo finkatua + 500 m ² (t)
g.00.EG 13. 03	58 m ²	Egungo finkatua
g.00.EG 13. 04	723 m ²	2.200 m ² (t)
g.00.EG 13. 05	62.523 m ²	4.800 m ² (t)

Modu osagarrian, indarreko Plan Orokorreko aplikazio zuzeneko zehaztapenen arabera behar den eraikigarritasun fisikoa antolatu ahal izango da sestra azpian.

Horren ondorioz, lehendik dauden eraikinak finkatu egin dira eta handitzeko baldintzak antolatu dira. Oin berriko eraikuntzei dagozkien baldintzak ere antolatu dira. g.00.EG.13.5 azpilursailan, eraikuntza berriek modu berezian hartuko dute kontuan hilerri barruko kaleen trazatu orokorra, bereziki hilerri zaharrekoa.

Eraikin berriek sestra gaineko hiru solairuko profil maximoa izango dute, eta berariaz baimenduko dira erabileragatik profil handiagoa ezinbestean behar duten eraikin bereziak.

Eraikinen 15,00 metroko gehieneko altuera ezarri da, lehen aipaturiko salbuespen berarekin.

Hilerrri osoan baimenduta dago era guztietako ehorzketak eraikitzea, bai panteoi formakoak edo beste eraikin-mota batekoak.

Hilobi-bilbeko lerrokadurak errespetatuz ehorzketa-mota berriak baimenduko dira, baldin eta hilobietara iristeko kaleak inbaditzen ez badira.

2.3. artikulua.- e.10 bide-komunikazioetarako sareko lurzatiaren Arau Partikularrak.

Plan Berezia honek udal bide-sarekoak diren eta, hurrenez hurren, 3.236 m² eta 722 m²-ko azalerak dituzten e.10.EG.13.1 eta e.10.EG.13.2 lurzatiak identifikatu ditu.

"e.10" lurzatiaren DHAPOn aurreikusitako araudia aplikatuko da lurzati horietan.

HIRUGARREN TITULUA URBANIZAZIO-ARAUAK

3.1. artikulua.- g.00.EG.13 lurzatiaren barne-urbanizazioko arauak.

Plan Berezi honen garapenean izapidetzen diren Urbanizazioko Obra Proiektuek Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak eta arloan aplikatu beharreko gainerako legeriak xedatutakora doitu beharko dituzte euren zehaztapenak.

Proiektu horiek kontuan hartuko dute hilerriaren egungo traza finkatzea, bereziki lehen ezarpena egindako ipar-ekialdeko zonan, kale edo sarbide berriak irekitzearen kalterik gabe, esaterako, Gabriel Aresti kaletik gitea aurreikusitakoa.

Hilerri zaharreko bi kale nagusietan, zuhaitz-txorkoetan soropila jartzea proposatu da, drainatzea errazteko, eta hormigoi latz grisa.

Hilerriko alderdi zaharreneko bigarren mailako kaleetan urbanizazioa honelakoa izango da: legarrezko egungo zoladuraren ordez hilobi guztietarako irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzen dituen arrasteluz akabera emandako hormigoi zurizko zoladura jarriko da, labaingarritasunaren inguruko baldintza egokiak bermatuz.

Gainerako zoladuren ezaugarriak finkatu egingo dira, oro har, hobetu eta mantentzearen kalterik gabe.

Halaber, DHAPOeko "1.2 Ingurumen Jasangarritasunaren Txostena" dokumentuan adierazitako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak eta haren garapenean sustatuko diren Udal-ordenantzek zehaztutakoak ere aplikatu beharko dira.

LAUGARREN TITULUA ONDARE KATALOGATUA BABESTEKO ARAUAK

4.1. artikulua- Babestu beharreko elementu indibidualen identifikazioa (eraikinak, panteoiak, kaperak eta hilobiak).

Lehenik eta behin, katalogatutako elementu indibidualak eta plan honetan katalogatuko direnak bereizten dira.

A.- Polloeko plazan 02, 03 eta 04 zenbakiekin identifikatutako kaperak hartzen eraikina.

HOEBPBren ondoriozko aplikazioko zehaztapenak finkatu egingo dira. Beraz, plan horren arabera, bat dator "C" babes-mailako eraikinarekin.

Beraz, bere balio indibiduala aitortzen zaion eta kanpoko inguratzailean babestu beharreko zatiak dituen elementu eraikia da.

Berariaz baimentzen da birgaitze-lanak egikaritzea eta gaur egungo bolumen eraikiaren barruan eraikigarritasuna handitzeko obrak egikaritzea.

B.- Plan honetan identifikatutako panteoiak, kaperak eta hilobiak.

Hilerriaren barrunbean babes-mailaren bat duten 469 elementu indibidual identifikatu dira, guztira dauden elementuen % 6 gutxi gorabehera.

Elementu horiek laugarren titulu honetako 4.4 artikuluan zerrendatu eta deskribatu dira. Planaren memorian aipaturiko irizpideen arabera aukeratu dira.

4.2. artikulua- Babestu beharreko elementu indibidualen babes-araubidearen zehaztapena.

Kapera hartzen duen eraikinaren babes-araubidea bat dator "C" mailako babesaren dutek eraikinrentzakoko HOEBPBn zehaztutakoarekin.

Hilerrian hautatutako panteoiak, kaperak eta hilobiak babesteko araubideak hiru babes-maila aurreikusten ditu, honako hauekin bat datozenak:

- Babes berezia (balio handieneko elementuei dagokiena).
- Babes ertaina.
- Oinarrizko Babesa.

Planaren memorian aipaturiko irizpideen arabera, babes berezia eman zaien 54 elementu identifikatu dira, babes ertaina eman zaien 248 elementu eta oinarrizko babesaren eman zaien 167 elementu.

Elementu horiek laugarren titulu honetako 4.4 artikuluan zerrendatu eta deskribatu dira.

Babes berezia eman zaien elementuetako esku-hartzeen xede dira, batez ere, interes bereziko kaperak eta panteoiak, beste hilobi batzuk ere kontuan hartzearen kalterik gabe. Elementu horientzat babes- eta kontserbazio-neurri hauek hartuko dira kontuan:

- Finkatu egin dira babes-maila honen xede-elementuak.
- Baimenduta dago elementu horietan zaharberritze zientifiko eta kontserbatzaileko modalitateetan birgaitzeko esku-hartzeak egitea, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan eta dekretu hori garatzen duten dokumentuetan xedatutakoaren arabera. Elementu bakoitzaren estilo arkitektonikoa errespetatu beharko da eta lehendik dauden material berdinak edo antzekoak erabili beharko dira, haien testura eta kolorea kontuan hartuz. Batez ere hilobietan eta hilobietako errementaritza-elementuetan txertatutako eskultura-piezak errespetatuko dira, hala nola, haien barrunbeak mugatzen dituzten zirgiloak, kateak, ateak, barandak, etab.
- Edozein kasutan, baimenduta daude kasu bakoitzean kontuan izandako jarraibideen arabera jarritako inskripzio berriak. Hilobietako grafian egiten diren esku-hartzeek lehendik dagoen letra-tipoa errespetatu behar dute multzoaren irudia ez indargabetzeko.
- Esku-hartzeek hilobietako lauzen neurriak errespetatu behar dituzte, egileen, marmolarien eta abarren izena ezkutatu gabe. Lehendik dagoen titulartasun-plaka alda daiteke, materiala, jatorrizko kolorea eta grafia errespetatuz.
- Baimenduta dago interesik ez duten edo elementuaren jatorrizko ezaugarri arkitektonikoei modu negatiboan eragiten dien gehigarri apalgarri eta edozein motatako obra berri ezabatzea.
- Kontserbazio-, segurtasun- eta apaintasun-baldintzak mantentzeko eta ondare eraikia babesteko behar diren mantentze-lanak egitea gomendatzen da. Arreta berezia jarri da beirateen egoeraren jarraipenean, ondo kontserbatzen direla bermatzeko. Jatorrizko beiratea desagertu egin bada, haren tokian beirate beruneztatu bakuna jartzeko aukera emango da, fatxadetan irekitako baoak ixteko eta kaperak hondatzea ekiditeko helburuarekin.
- Ez dira baimenduko esku hartzeko beste modalitate batzuk eta, bereziki, babes-maila horri lotutako elementuak eraitsi eta ordeztekoak.

Babes ertaina eman zaien elementuetako esku hartzeen xede dira intereseko hilobiak. Elementu horientzat babes- eta kontserbazio-neurri hauek hartuko dira kontuan:

- Finkatu egin dira babes-maila honen xede-elementuak.
- Baimenduta dago elementu horietan zaharberritze zientifiko eta kontserbatzaileko modalitateetan birgaitzeko esku-hartzeak eta kontserbatu, apaindu eta finkatzekoak egitea, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan eta dekretu hori garatzen duten dokumentuetan xedatutakoaren arabera. Dauden material berdinak edo antzekoak erabili beharko dira, haien testura eta kolorea kontuan hartuz. Batez ere hilobietan eta hilobietako errementaritza-elementuetan txertatutako eskultura-piezak errespetatuko dira, hala nola, haien barrunbeak mugatzen dituzten zirgiloak, kateak, ateak, barandak, etab.
- Edozein kasutan, baimenduta daude kasu bakoitzean kontuan izandako jarraibideen arabera jarritako inskripzio berriak. Hilobietako grafian egiten diren esku-hartzeek lehendik dagoen letra-tipoa errespetatu behar dute multzoaren irudia ez indargabetzeko.
- Esku-hartzeek hilobietako lauzen neurriak errespetatu behar dituzte, egileen, marmolarien eta abarren izena ezkutatu gabe. Lehendik dagoen titulartasun-plaka alda daiteke, materiala, jatorrizko kolorea eta grafia errespetatuz.

- Baimenduta dago interesik ez duten edo elementuaren jatorrizko ezaugarri arkitektonikoei modu negatiboan eragiten dien gehigarri apalgarri eta edozein motatako obra berri ezabatzea.
- Kontserbazio-, segurtasun- eta apaintasun-baldintzak mantentzeko eta ondare eraikia babesteko behar diren mantentze-lanak egitea gomendatzen da.
- Ez dira baimenduko esku hartzeko beste modalitate batzuk eta, bereziki, babes-maila horri lotutako elementuak eraitsi eta ordeztekoak.

Oinarrizko babes-a eman zaien elementuetako esku-hartzeen xede dira hautatutako beste hilobi batzuk. Elementu horientzat babes- eta kontserbazio-neurri hauek hartuko dira kontuan:

- Finkatu egin dira babes-maila honen xede-elementuak.
- Baimenduta dago elementu horietan zaharberitze zientifiko eta kontserbatzaileko modalitateetan birgaitzeko esku-hartzeak eta kontserbatu, apaindu, finkatu eta eraberritzekoak egitea, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan eta dekretu hori garatzen duten dokumentuetan xedatutakoaren arabera. Eraberritze-lanen norainokoak konposizio-unitatea babestea bermatuko du, balio estilistiko bereziko elementuak kontserbatuz. Dauden material berdinak edo antzekoak erabili beharko dira, haien testura eta kolorea kontuan hartuz. Batez ere hilobietan eta hilobietako errementaritzaren elementuetan txertatutako eskultura-piezak errespetatuko dira, hala nola, haien barrunbeak mugatzen dituzten zirgiloak, kateak, ateak, barandak, etab.
- Edozein kasutan, baimenduta daude kasu bakoitzean kontuan izandako jarraibideen arabera jarritako inskripzio berriak. Hilobietako grafian egiten diren esku-hartzeek lehendik dagoen letra-tipoa errespetatu behar dute multzoaren irudia ez indargabetzeko.
- Esku-hartzeek hilobietako lauzen neurriak errespetatu behar dituzte, egileen, marmolarien eta abarren izena ezkutatu gabe. Lehendik dagoen titulartasun-plaka alda daiteke, materiala, jatorrizko kolorea eta grafia errespetatuz.
- Baimenduta dago interesik ez duten edo elementuaren jatorrizko ezaugarri arkitektonikoei modu negatiboan eragiten dien gehigarri apalgarri eta edozein motatako obra berri ezabatzea.
- Kontserbazio-, segurtasun- eta apaintasun-baldintzak mantentzeko eta ondare eraikia babesteko behar diren mantentze-lanak egitea gomendatzen da.
- Ez dira baimenduko esku hartzeko beste modalitate batzuk eta, bereziki, babes-maila horri lotutako elementuak eraitsi eta ordeztekoak.

Babes-mailaren bat duten elementuetan esku hartzeko eskaera aurkeztu beharko da jarduketaren norainokoaren memoria justifikatzailearekin batera eta -bere kasu- dagokion baimena izango duen esku-hartzearen planoak.

Elementuen jatorrizko akabera mantentzea ezinezkoa denean, partzialki desagertu direlako edo modu itzulezinean hondatuta daudelako, akabera edo estaldura berriak egikaritzeko baimena eman ahal izango da, baldin eta maila berean babestutako beste elementu batzuetan hartutako irtenbideren bati erantzuten diotenean. Erreferentziako eredu kasu bakoitzean zehaztuko da dagokion proiektuaren esparruan, behar diren arrazoi justifikatzaileak barne dituela.

4.3. artikulua- Multzoaren babes-araudiaren zehaztapena.

Hilerriko multzoaren (HOEBPBk E mailarekin katalogatua) irudi global eta unitarioa bermatzeko xedez, g.00.EG.13 lurzatiari aplikatu beharreko barne-urbanizazio arloko Hirigintza Arau hauetako Hirugarren Tituluan jasotzen den guztia xedatu da.

Horretarako, ez da beharrezkoa izango eraikuntza-proiektu edo urbanizazio-obra unitarioak egitea, proiektuek ezarritako araudia beteko duten arren.

4.4. artikulua- Identifikatutako elementu indibidual bakoitzaren babes-araubidea.

Ondoren zerrendatu eta deskribatuko dira babestu beharreko 469 elementu hautatuak, eta bakoitzari dagokion babes-maila ezarriko da.

Beste elementu batzuk sartzea edo kanpoan uztea Plan Berezi hau aldatzeko espedienteari hasiera emanda gauzatu egin ahal izango da, Administrazioak berak, partikularrek eta abarrek sustatuta. Espediente horrek, aldaketaren motibazioaz gain, hauek izan behar ditu: sartu edo kanporatu beharreko elementuaren identifikazioa, egin nahi den ekintzaren justifikazioa eta sarrera berrien edo babes-araubidearen aldaketen kasuan, elementua dagokion babes-mailari atxikitzea eta horri dagokion Ordenantza Partikularra.

Hilobi babestuen zerrenda

Alfabetikoki ordenatutako 469 unitate.

Sortez Garbiaren Taldea: 021, 023, 024, 027, 033, 224, 302.

Andre Maria Sortez Garbiaren Taldea: 001-005, 002-006, 008-010, 015-019, 016-020.

Horma hilobiak eta Kataknbak: 001-030.

Arrateko Andre Maria: 030.

Izaskungo Andre Maria: 139-141.

Olazko Andre Maria: 189-195.

Junkaleko Andre maria: 046, 065-066, 094-095.

Uxueko Andre Maria: Monumento.

San Alberto: 018-020, 026-030, 054-058.

San Antonio: Monumento.

Xabierko San Frantzisko: 056-058, 062-064, 107-109, 108, 299-301, 303-305, 417-421.

San Frantzisko: A-B.

San Ignazio: 000 (Monumento), 001-009, 00EFGH, 00LMN, 011, 026-036, 033-035, 073-077, 048-054, 068-072, 078, 090, 091-093, 095-099, 103, 104, 109-113, 118-120, 141-143, 162-164, 166-170, 180-182, 202-204, 213, 240, 251-253, 275, 321-323.

San Ildefonso: 039-041.

San Laurendi: D, 005-009, 008, 00EFGHI, 00JKL, 010, 013-015, 020, 021-023, 022-024, 026, 031-033, 032-036, 035, 038-040, 041, 042-044, 043-045, 047-049, 054, 074-084, 109-117, 116-120, 141, 146-148, 164-168, 172, 174-176, 182-184, 186-188, 227, 233, 244, 246-248, 329.

San Martzial: 058-060, 084.

San Martin: 000EF, LM, QR, 027-029, 038-042, 054, 056, 097-099, 103-107, 108, 109, 113, 121-123, 130, 137-139, 152, 172, 173-175, 180, 217, 241-243, 245-247, 249-251, 284, 285-287, 296, 303, 318, 321-323, 328, 407-409.

San Pablo-San Rafael: Capilla.

San Pedro: 053, 068, 073, 089-093, 120, 125-127, 137-139.

San Prudentzio: Monumento Obelisco, 00ABCDE, 00IJK, 00LMN, 001-003, 002-004, 005-011, 014-016, 032-036, 037-041, 038-042, 048-054, 072, 074-080, 082-088, 089, 099-103, 108, 140-144, 161-163, 165, 174-176, 179, 185, 208, 214-216, 219-223, 220-222, 243, 251, 257-259, 273, 296, 309, 364, 376.

San Sebastián: 001, 008-010, 012-014, 021-023, 022-026, 025-027, 029-033, 037-039, 038, 046, 052-054, 055, 056-060, 063-065, 066-068, 071, 073-075, 074-080, 077, 079, 082-086, 087-089, 090-094, 091, 093, 096-098, 100-102, 110-114, 121-125, 126-130, 140-144, 139-141,

146-154, 156-158, 157-167, 162-164, 169-173, 170-172, 175-179, 176-180, 181-183, 182-186, 185-187, 188-192, 189-191, 193, 195-197, 213-215, 217-221, 218-220, 223-227, 224-226, 228-230, 229-233, 232-234, 235-237, 238-240, 242-244, 246-248, 249-253, 255-257, 259-261, 267-273, 279-283, 285-287, 289-293, 305, 308, 315-319, 322-328, 329-331, 334-336, 343, 346, 352, 357-361, 358-362, 363-365, 387-389, 388-390, 402, 408, 414, 424-428, 430-432, 433-435.

San Teodoro: 016-020, 019-021, 028-030, 050-054.

San Bizente: 001, 002-008, 009-011, 014-024, 015, 021-025, 028, 029, 036-040, 037-041, 048-054, 049-053, 055-057, 056-062, 059-061, 065-069, 068-072, 080-084, 081-083, 085-089, 086-088, 088-090, 091-095, 101, 103-107, 110-114, 116-120, 117-119, 122-126, 139-143, 140-144, 145-149, 146-148, 151-153, 152-154, 161-169, 162, 174, 177-179, 181-185, 182, 186, 192, 193-195, 209-211, 213-215, 219-221, 224-226, 241-243, 249-251, 250-254, 253, 263, 277-279, 280, 281-283, 291-293, 321-323, 322-324, 341-345, 352-354, 358-360, 376-378, 394-398, 424-428.

Santa Katalina: Monumento Cruz Roja, Monumento Ejército Español, 001, 003, 007, 012, 016, 019, 040-042, 046, 049, 050, 053, 056, 066, 073-077, 076, 078, 079, 088, 090, 092, 102, 106, 135, 140, 142, 146-150, 157, 171, 174, 196, 199-205, 237, 247, 307, 349, 350, 358.

Santa Klara: Fosas Comunes en Parcela Militar, 002, 019, 022, 030, 031, 040, 043, 050, 051, 052, 053, 054, 065, 066-070, 075-077, 092, 099, 103, 121, 140-142, 145-149, 151-155, 157-161, 158-160, 163, 180, 185, 200, 212, 218, 220-222, 223, 225-227, 234, 254, 290, 317, 329, 338, 340, 351-355.

Santa Luzia: 032.

Santa Maria: 002, 008, 013, 033, 035, 039, 057, 063, 069, 072, 073, 074-076, 082, 112, 120-122, 124-126, 135, 137, 139, 144, 151, 179, 185, 211, 249-251, 250, 282, 297, 330, 383-387.

Santa Teresa: 001, 015, 022, 023, 038, 041, 067, 070, 074, 084, 086, 109-111, 117, 129, 134, 136, 138-140, 144, 146-148, 254, 255, 263-265, 266, 299-301, 355, 442.

Hiritasun Santua: 001-003.

Santu Guztiak: 033, 034-035.